

AISIALDI ESKAINTZA

Bat-bateko taldeetan edota bertso-eskoletan dabiltzan gaztetxoei zuzendutako egonaldiak antolatzen ditu Elkartek: bertso-barnetegiak.

Kirola, natura, lagunak, kantua eta jolasa izango dituzte gazteek lagun, bertsoa oinarri izango duten egonaldi hauetan. Barnetegiko ardatz nagusia bertsolaritza izango da, beraz. Bertso-eskolak izango dituzte gazteek talde txikietan, plazako puntako bertsolarien bisita izango dute eta bertso-saioak izango dituzte eurei zuzenduta. Gainera, gai jartzaile beharra probatzeko aukera ere izango dute.

Aisialdia ezinbesteko joko zelaia izango da, bertsolaritzaren lanketa ulertzeko orduan. Bertsolaritzaren inguruan dabiltzan gazteei aisialdian bertsoarekin eta euskararekin gozatzeko aukera ematea da asmoa.

Hiru dira, orokorrean, Elkartek urtero antolatzen dituen barnetegiak urtean:

- Neguko barnetegia: otsaila-martxoaren inguruaren asteburu pasa DBH1etik 2. Batxilergoko ikasleentzako.
- Udako barnetegia: ekaineko azken astean 4 eguneko egonaldia DBH1etik 2. Batxilergoko ikasleentzako.
- Neguko bertso plana: abenduan gau bateko egonaldia DBH3etik 2. Batxilergoko ikasleentzako.

Hemen, [neguko barnetegia irudietan](#).





INFORMAZIO GEHIAGO

Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Zabale kalea 9, atzea

48200 Durango

Tel: 946812711

E-posta: bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus